

KANALAK

Oraingoan, gure erabiltzailengana iristeko zer kanal mota erabiliko ditugu azalduko dugu. Gurean kanalak ezinbestekoak izango dira elkartearen aurrera eramateko eta erabiltzailearekin modu erosoan kontaktatzeko. Erabiltzaileak gurekin harremanetan jartzeko erreztasunak ahalbidetu behar ditugu, haiei segurtasuna bermatzeko.

Gure zerbitzura harpidetzeko hainbat baliabide ditugu, gure lokaleko telefono finkoaren bidez, webgunearen bidez eta lokalean zuzenean gurekin hitz egiten. Mugikor bidez deitzeko eta gurekin zuzenean hitz egiteko egun osoan zehar edukiko dute aukera, baina gure zerbitzua 17:00etatik 21:00etara eskainiko dugu. Interesdunak elkarteari eta haren proposamenei buruzko informazioa izan dezan webgunearen bidez edozein momentutan harpidetu daiteke. Gure elkarteari buruzko informazioa (ordutegia, kokapena, helburua etab.) erraz aurki dezakete Donostiako udaletxean egongo diren panfletoetan, gure webgune pertsonalizatuan edo gure inguruko eskoletan.



Gure proiektua martxan jartzeko, erabiltzailekin komunikatzea funtsezkoa da eta horretarako hainbat komunikabide erabiliko ditugu. Hasteko, Donostiako udaletxe eta eskoleen bidez gure elkartearen publizitateko dugu Hauek asko lagunduko digute nerabe eta gurasoek gure berri izatea eta horrelako gaietarako modu egokiena dela uste dugu. Hala ere, horrez gain, sare sozialak ere erabiliko ditugu, batez ere, nerabeek gure berri izateko; izan ere, gaur egun, sare sozialak gure eguneroko bihurtu dira gazteentzat eta helduentzat. Ondorioz, Instagramen kontu bat sortuko dugu eta bertan, gure enpresaren istorioak igoko ditugu, jendeak gure elkartearen era erakargarri batean ikusi dezaten. Gure webgunean, Instagramen, Facebooken eta Twitterren elkartearen publizitateko dugu. Ahalik eta ondoen azaltzen saiatuko gara elkartearen zertan datzan, nortzuk garen, ordutegia eta gurekin harremanetan jartzeko aukerak adierazten. Gainera, norbaitek zalantzarik badu edo gurekin edozein arrazoiengatik harremanetan jarri behar badu, Instagramen sortuko dugun kontutik idazteko aukera izango dute: [maleoelkarte_](#) bestela, gure gmail-a ere eskuragarri egongo da: maleo@gmail.com. Gai jakin bati buruzko edozein zalantza izanez gero, ez dugu arazorik izango hauek argitzen.



Beste alde batetik, kartelen bidez publizitatea egitea izango da, hau da, sare sozialik ez duten horiek, gure elkartearen ezaugarriak ikusi ahal izateko, Donostiako inguruan dauden herrien zehar hainbat kartel jarriko ditugu, kartel horietan zer eskaintzen dugun adieraziko dugu, eta horrela, nerabeen arreta deitzen saiatuko gara. Erakusleia erakargarria izango du eta hainbat kartel izango ditugu ikusgarri, aurretik pasatzen den jendeari atentzia deitzeko. Honekin gure

helburu nagusia jendeari iristea izango da, arazo hau pairatzen dutenak gure lokalaren eskaintza ikustea eta jasaten duten guzti horiek guregana etortzeko beldur ez izatea eta horrezkero animatzea. Horri esker, lokalera erabiltzaile gehiago etorriko dira, eta, gainera, arazoaren ikusgarritasuna areagotuko da. Hortaz aparte, lehen aipatu dugun moduan, sare sozialak erabiliz ere publizitatea egingo dugu.

Gure elkarte, Donostian kokatuta dago eta hitzorduetatik kanpo, aurrez aurre berriro hitz egiteko aukera ere egongo da. Edozer zalantza izanda, 10:00etatik 21:00etara elkartean egongo gara eta erabiltzaiearen batek duen arazoa argitzea nahi badu lokalera ere etor daiteke.

Azaldu dugun moduan, gure elkarteari buruzko informazioa guztiz eskuragarri dago, edonork lortu dezake. Beti izango gaituzte gertu eta laguntzeko prest. Gaur egun, arazo edo gertakari hauek ohikoak dira umeen artean, horregatik sortutako problemari aurre egiteko, modu eramangarriago bat izango da gurea, batez ere nerabeen autoestima maia altua izateko.